

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3760

978/2017 EBAZPENA, uztailaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Marbella García Urbaneja andrea Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari nagusi lanpostua betetzeko izendatzeko dena.

Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari nagusi lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen ekainaren 19ko 838/2017 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2017ko ekainaren 27ko EHAAn argitaratu (121. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita euren baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Marbella García Urbaneja andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Marbella García Urbaneja andrea Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari nagusi izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko uztailaren 14tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.